

la perfumería

2016KO UDABERRIA

de Mercadona

**ARGIAK ETA
ITZALAK
BEGIRADA
MAGIKOAK
AURTENGO
UDABERRIRAKO**

**MANIKURA
ETXEAN
KOLOREA ETA
ESTILOA ZURE
AZAZKALETAN**

Edertasuna
AZAL-AZALEAN

Derмик ur mizelarra

Ezinbestekoa duzu
aurpegia garbitzeko



dermik
dermocosmetics

Agua
Limpiadora
Micelar

para pieles sensibles

Limpia, desmaquilla
y suaviza
Sin aclarado

Para rostro y ojos
Con Activo Calmante

Testado clínica
y dermatológicamente
Hipoalergénico

Deliplus

Deliplus



AURKIBIDEA



Argitaratzailea: MERCADONA SA
Polígono Industrial Fuente del Jarro
C/ Ciudad de Liria, 5 / 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimaketa: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren eskaintza estandarrekoak dira. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularrak MERCADONA, SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe osorik edo partzialki erabiltzea eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak ere.

- 04 Edertasuna AZAL-AZALEAN**
Galdetu diozu inoiz zeure buruari zer gertatzen ote zaion zure azalari udaberria heldzearekin batera? Tenperatura atseginagoa da, eguzki-ordu gehiago daude, eta denbora gehiago igarotzen dugu aire librean. Gure azalak urtaro-aldaketa horretarako egokitu eta prestatu behar du, erritualetan batzuen bidez; haiei esker, eder eta osasuntsu egongo da.
- 09 Intentsitate-ALDAKETA**
Lore-ukitu freskoak, zitrikoak, biziak, egur-kutsukoak. Aukeratu aurtengo udaberrirako lurrina, zeuri ondoen datorkizuna.
- 12 For Men 6 EDERTASUN-GAKO**
Zure azala zaintzeko gakoa: garbitasuna eta hidratazio sakona. Ikusi zer "beauty kit" behar duzun 15 minutuan aurpegi, gorputz eta ile perfektuak lortzeko.
- 17 Ile-eskuila ERABILIZ**
Adats zaindua eta ondo orraztua izatea da look ororen ukitua. Deliplus eskuila-bilduma berriarekin, bikain izango duzu ilea, akabera profesional batekin.
- 18 Argiak ETA ITZALAK**
Asmatu berriro begi ilunduen efektua, goitik behera aldatuz testura eta kolore berriekin. Begirada magikoak aurtengo udaberrirako.
- 24 Makillaje ESTILODUNA**
Denboraldi honetako look izarrak distiratu egiten du, bai egunez, bai gauzez: gorritasun naturala, itzal leun eta metalizatuak, eyeliner ondo markatua eta koral-koloreko ezpainak. Chic uneak!
- 26 Konbinazio PERFEKTUA**
Erakutsi ezpain belusatuak, kolore eta distira bikaineoak, bi urrats eginda.
- 28 Ezpainen INDARRA**
Gorriak, arrosak edo laranja-kak, mateak, distiratsuak edo ondo hidratatuak. Koloreak eta testurak markatuko dute zure estiloa.
- 30 Manikura ETXEAN**
Manikura perfektu bat lortzeko behar duzun guztia, ordu-erdi baino gutxiagoan, eta etxeko sofatik bertatik... Ausartuko zara?
- 32 Maitasuna LEHEN BEGIRATUAN**
Emaitza sutu eta oso distiratsuak. Deliplus Color azazkal-lakek maitemindu egingo zaituzte, bere formula dela eta: emateko erraza, eta koloretsua. Ikusi nolakoak diren, eta konbinatu tonuak.

Modeloak 05 zenbakiko Hydra-brillo barra eta 13 zenbakiko krema-koloreko itzal matea ditu.

Edertasuna

AZAL-AZALEAN

Galdetu diozu inoiz zeure buruari zer gertatzen ote zaion zure azalari udaberria heltzearekin batera? Temperatura atseginagoa da, eguzki-ordu gehiago daude, eta denbora gehiago igarotzen dugu aire librean. Gure azalak urtaro-aldaketa horretarako egokitu eta prestatu behar du, erritual batzuen bidez; haiei esker, eder eta osasuntsu egongo da.

ETA ESFOLIATU

Lehen urratsa: garbitu eta prestatu azala, leun eta distiratsu geratzeko. **Ur garbitzaile mizelarra** (1) izango da azal-mota guztientzako soluzioa urte-sasoi honetan, sentikorrentzat bereziki. Horrez gain, hauek daude: **Deliplus begietako makillajea kentzekoa** (2), garbiketa espezifikoaren lerroaren barruan, eta **gel garbitzaile purifikatzailea** (3), hutsezina azal koipetsuetarako.

Esfoliazio on batek gaztetu egiten du, eta azaleko zelula hilak berritu. Hona hemen zure aliatuak: **aurpegirako esfoliatzailea** (4), **gorputzerako dutxa-gel esfoliatzailea** (5) eta **esfoliatzaile desinkrustatzailea** azal koipetsuetarako (6).



1



2



3



4



5



6



Maisu-ukitua

Esfoliazioaren ondoren, garbitu aurpegia ur epelarekin; poroak handituko dituzu, eta, hala, azalak errazago xurgatuko du krema hidratatzailea.

HIDRATATU

Udaberria iristearekin bat, azkurak, gorritasuna, alergiak eta ezkatatzeak gertatzen dira azal askotan, bereziki lehorretan eta sentikorretan; izan ere, haiek sufritzen dute gehiena urte-saso honetan. Gomendagarria da tenperatura-aldaketa asko ez egitea, ur epelarekin dutzatzea eta azal-mota bakoitzerako produktu egokiak erabiltzea.



1



2



3



4



5

Kolagenoa + silanola adinaren aurkako aurpegirako kremak (1) zahartzearen zantzuak eragozten eta prebenitzen ditu, bolumena eta tinkotasuna ematen duten bi aktibo batzeari esker; gainera, asko elikatzen du azala, eta birsortzen laguntzen. Azal sentikorretarako, aktibo lasaitzaileak dituen formula bat da gomendio onena: **Hidrasensitive Dermik crema** (2). **FPS15 gorritasunen aurkako crema** (3) izango da soluziorik onena gorritzeko joera duten azal sentikorretarako. Azal koipetsuetarako, **Oil Free fluidor hidratatzailea** (4), testura arinekoa, seboerregulatzailea eta matetzailea. Eta, gorputzerako, **gorputzerako crema jojoba-oliaduna** (5).

AURPEGIA ZAINZKEO GEHIGARRI BAT

Gogoan izan: crema hidratatzailea baino lehen ematen da seruma; tratamendu osagarri horrek onurak dakartzkio zure azalari, aktibokontzentrazio handia baitu. **Argitasun-serum C bitaminaduna** (6), **zimurren aurkako seruma** (7) eta **serum ultrahidratatzailea** (8); aukeratu zure azalaren beharretara ondoen egokitzen dena. Eguzkiarekin eta beroarekin, distirak eta gehiegizko bilgorra itzultzen dira azal koipetsuetara. Hori saihestu eta azala garbitu nahi baduzu, eman astean behin edo bitan **Oil Free maskara orekatzailea** (9).



6

7

8



9



3,2,1...

GORPUTZA

PREST!

Hasi gorputza prestatzen udaran harro erakusteko; ez ahaztu konstantzia dela aliaturik onena.

EGUZKI-IZPI BAT

Azal beltzaran polit bat erakuts dezakezu. **Paper-zapi autobrontzeadoreak (1)**, **beltzaran-efektuko gorputzerako hidratatzailea (2)** eta **Solar kapsula (3)** efektu antioxidatzailedunak, ezin hobek azala eguzkitarako prestatzeko. Babestu zure aurpegia urte osoan aurpegiko **FPS50+ xurgapen azkarreko fluidoarekin (4)**, eguzkiaren kontrako zure defentsa-plana.



1



2



3



4

Bye Bye zelulitis

Ez konplikatu; jarraitu beharreko urratsak oinarritzkoak dira.

✓ Eman toki jakinetako koipearen, zelulitisaren eta laranja-azalaren kontra egiten lagunduko dizuten kremak: **zelulitisaren aurkako krema erredutzatzailea (5)** eta **Vanity Series zelulitisaren kontrako olio lehorra (6)**. Gogoan izan masajea ematea dela sekretua. Eman 10-15 minutuko masajea egunean behin edo bitan, eta emaitza ikusiko duzu.

✓ Hartu egunero **Deliplus zelulitisaren kontrako programa (7)**; barrutik zelulitisa murrizten lagunduko dizu, eta zure azalaren itxura hobetu egingo da.

✓ Dieta orekatua. Ez duzu gosea pasatu behar. Elikatu ondo, modu osasungarrian.

✓ Egin ariketa fisikoa. Nahikoa da egunero 20 minutuz ariketa fisikoa egitea, hankak, gluteoa, besoak eta sabela indartzeko.

Vanity Series bularrak tinkotzeko krema (8) lagungarria da biguntasuna saihesteko, indartzen eta berregituratzen duten aktiboekin konbinazioari esker.



6



5



7



8

INTENSITATE- *aldaketa*

*Lore-ukitu freskoak, zitrikoak, biziak, egur-kutsukoak.
Aukeratu aurtengo udaberrirako lurrina, zeuri ondoen datorkizuna.*



- ❶ Luz de Flor Serena eau de toilette-a.
- ❷ Luz de Flor eau de toilette-a.
- ❸ Grand Suite Cap Ferrat eau de toilette-a.
- ❹ Grand Suite Santorini eau de toilette-a.
- ❺ Grand Suite Capri eau de toilette-a.
- ❻ Rose Nude eau de parfum-a.
- ❼ Melodía para una mujer eau de toilette-a.
- ❽ Picnic eau de toilette-a.



01 zenbakiko makillaje naturala eta makillaje-belaki triangeluarra (kolore bat baino gehiago).



Eguzki-hautsak.



Barra matea, 06 zk. naturala.

Maxi Volumen betileetarako maskara, 02 zk. marroia.



Kolore anitzeko koloretea.



Perla-koloreko begi-itzala, 08 zk. perla-marroia, eta itzal matea, 13 zk. krema-kolorekoa.

Nude FUNTSEAN

Estreinatu udaberria ia igartzen ez den makillaje natural batekin. Oinarri arina, argi-ukituak eta azal-tonuak ezpain, masailezur eta begietarako.



Pintzel argitzailea, 01 zk. arrosaxka.



Erakarpen hutsa

 **SQUARE**
men



6

*Zure azala
zaintzeko gakoa:
garbitasuna eta
hidratazio sakona.
Ikusi zer "beauty
kit" behar duzun
15 minutuan
aurpegi, gorputz
eta ile perfektuak
lortzeko.*

edertasun-gako

1 *Azal garbia*

Garbitu eta esfoliatu zure azala gizezkoen 9.60 lerroko produktuekin.

Aurpegirako gel garbitzailea eta **aurpegirako gel esfoliatzailea**.



2 *Agur begirada nekatuari*

Egunero **9.60 begi-inguruetarako krema** erabiltzeak zure begirada gaztetuko du, eta begi-poltsak eta begi-zuloak tratatuko ditu.

Gomendioa

Eman begi-inguruko krema kolpe txikiak emanek; hobe da eremu horretan azala ez tenkatzea, biguntzea eragiten baitu.



3 *Hidratatu*

Zimurrak saihesteko aurpegi-zainketa: **9.60 zimurren eta adinaren aurkako krema** eta **9.60 krema hidratatzaile babeslea**. Gehigarri bat behar baduzu, 9.60 krema hidratatzaileak, gainera, eguzki-izpietatik babesten du zure azala; hidratatu egiten du, eta garaia baino lehen zahartzea saihestu.



4

Gizon prestu bat ondo perfumatuta ibiltzen da beti

Energikoa eta bizia, **Acción 9.60 Sport Water**. Sentsuala eta espontanea, **Desafío Sport eau de toilette-a**. Freskoa eta zitrikoa, **4Square Men Fresh body spray** desodorantea.



5

Zaindu eta orraztu ilea

Xanpu indargarria, ile indartsu eta osasuntsua izateko, eta **gel finkatzaile estragogorra, for men**, alkoholik gabea.



Gogoratu

Ariketa fisikoa egitea, jateko ohitura osasungarriak izatea eta konstantzia handia dira gorputza zaintzeko jarraibideak.



6

Bikini-operazioa, gizonen bertsioan

9.60 sabelerako gel erreduzitzailea egunean behin edo bitan ematen da, koipea metatzen den eremuetan; bereziki, sabelean eta gerrian. **Lipo Reductor Deliplus** anpoilek karnitina, matea eta anana dute oinarri, eta koipeak errazago ezabatzen laguntzen dute.



Sombra

larga duración

deliplus
COLOR



2

TONU
DENBORALDI
HONETAN

03 berdea

06 urre zaharra

EDIZIO MUGATUA

Uhinetan BARRENA

Moda-modan dagoen ile-orrakera bat erakutsiko dizugu: surf-uhinak, DIY estiloan (Do It Yourself: egizu zeuk). Ezin hobea eguneko edozein ordutarako.



URRATSEZ URRATS

1. Garbitu ilea **ile kizkurrentzako xanpuarekin**, eta hidratatu **ile kizkurrentzako maskarekin**.
2. Lehortu xukadera batekin, gehiegizko hezetasuna kentzeko, eta eman **ile kizkurra zehazteko krema** erdialdetik puntetaraino. Banatu ilea, kiribildu, eta heldu gantxoekin.
3. Lehortu motots txikiak (kiribildutako ilea) lehorgailuarekin.
4. Askatu ilea, eta orraztu hatzekin, lortu nahi duzun looka izateko.
5. Hurrengo egunean uhinak berreskuratzeko, eman **kizkurra berreskuratzeko espraia**, erdialdetik puntetaraino.

Ile-eskuila

ERABILIZ



Adats zaindua eta ondo orraztua izatea da look ororen ukitua. Deliplus eskuila-bilduma berriarekin, bikain izango duzu ilea, akabera profesional batekin.

✓ (1 eta 6) **Eskuila pneumatikoa eta eskeletoa**
Ile-mota guztiak askatzeko.

✓ (2, 3 eta 4) **Eskuila ionikoa**
Diametro desberdinetakoak daude. Ile-mota guztiak moldatzeko. Tratamendu ionikoak ile harrotua murrizten du, eta distira eta leuntasun gehigarri bat ematen.

✓ (5 eta 7) **Eskuila pneumatiko eta eskeleto txikien packa**
Txikiak direnez, beti zeurekin izan ditzakezu, edozein egoeratan adatsa askatzeko.



ARGIAK

ETA ITZALAK

*Asmatu berriro
begi ilunduen
efektua, goitik
behera aldatuz
testura eta
kolore berriekin.
Begurada
magikoak aurtengo
udaberrirako.*



Perla-koloreko
itzala, 08 zk.
perla-marroia.



Iraupen luzeko
itzala, 06 zk. urre
zaharra.



Dramatic
Volume
betileetarako
maskara.



Xalotasun gozoa

Lortu look hau **06 zenbakiko urre zaharraren koloreko iraupen luzeko itzala** betazal mugikor osoan zabalduz, eta eman perla-koloreko itzala, **08 zenbakiko marroia**, sakontasuna emateko. **Dramatic Volume betileetarako maskara**, **koral-koloreko koloretea** masaileri gorritasuna emateko, eta **ezpainetako barra krematsua**, 10 zk. laranja.



Koral-koloreko
koloretea.



Ezpainetako
barra krematsua,
10 zk. laranja.



Soft Colors: arrosa eta berdea

Arrosa-berde nahasketak liluratu egiten du: zure aurpegiera leuntzen du, bi tonu horiek bikain konbinatzen dituen makillaje goxo baten bidez. Begietan, **iraupen luzeko itzala, 03 zk. berdea**, eta **Dramatic Volume maskara**. Ezpainetan, **barra krematsua, 14. zk. perla-arrosa**.



Azazkal-esmaltea,
38 zk.

Barra
krematsua,
14 zk.
perla-
arrosa.



Iraupen luzeko itzala,
03 zk. berdea.



Dramatic
Volume
betileetarako
maskara.



Koral-koloreko
koloretea.





Romantic

Betazal mugikorraren erdia **iraupen luzeko itzal berdearekin (03 zk.)** makillatzen baduzu, eta beste erdia **urre zaharraren koloreko (06 zk.) iraupen luzeko itzalarekin**, erromantizismoz eta magiaz betetako look bat lortuko duzu. Makillajea osatzeko, **ezpainetako barra krematsua, 10. zk laranja, kolore anitzeko koloretea** eta **Dramatic Volume maskara**.



Dramatic Volume betileetarako maskara.



Iraupen luzeko itzala, 06 zk. urre zaharra.



Kolore anitzeko koloretea.



Iraupen luzeko itzala, 03 zk. berdea.



Ezpainetako barra krematsua, 10 zk. laranja.



Makillaje

ESTILO DUNA

la perfumería

Denboraldi honetako look izarrak distiratu egiten du, bai egunez, bai gauzez: gorritasun naturala, itzal leun eta metalizatuak, eyeliner ondo markatua eta koral-koloreko ezpainak.

Chic meak!



Intense eyeliner.



Barra matea, 04 zk. koral-kolorea.



Betile-kizkurgailua.



Azazkal-esmaltea, 39 zk.



Longitud Xtreme maskara beltza.



Kolore anitzeko koloretea.

Seco&Mojado itzalen duoa, 06 zk. marroi naturala.





**Barra matea,
11 zk. gorria.**

Makillaje hori lortzeko, erabili iraupen luzeko itzala, 06 zk. urre zaharra, Intense eyeliner-a, Volumen 4Dimensiones betileetarako maskara, eta koloretea, 03 zk. urre-kolorekoa. Bukatzeko, eman, lehendabizi, **barra matea, 11 zk. gorria**, eta, ondoren, **ezpain-distira, 11 zk. gardena**, oparo.

*Erakutsi ezpain
belusatuak,
kolore eta distira
bikainekoak, bi
urrats eginda.*

Konbinazio
PERFEKTUA



Ezpainetako distira, 11 zk. gardena.



Barra matea, 09 zk. morea.

Look hori lortzeko, erabili iraupen luzeko itzala, 06 zk. urre zaharra; itzal matea, 02 zk. beltza; Intense eyeliner-a; Volumen 4Dimensiones betileetarako maskara; eta koloretea, 03 zk. urre-kolorekoa. Bukatzeko, eman, lehendabizi, **barra matea, 09 zk. morea**, eta, ondoren, **ezpain-distira, 11 zk. gardena**, oparo.

GOGORATU
 Look hori izateko, lehendabizi, eman kolorea guk proposatzen dizugun ezpainetako barrekin, eta, jarraian, eman distira-geruza oparo bat gloss efektua lortzeko.



Alerta gorria

Barra matea, 11 zk. gorria + ezpainenako distira, 11 zk. gardena.

(EZPAINEN INDARRA)

Gorriak, arrosak edo laranjaxkak, mateak, distiratsuak edo ondo hidratatuak. Koloreak eta testurak markatuko dute zure estiloa.



Rosa Rosae

Barra matea, 09 zk. morea + ezpainenako distira, 11 zk. gardena

Ezpainetakoa aukeratzean, begiratu behar dugu zer datorkigun hobeto, kontuan izanik zer koloretakoak ditugun begiak, azala edo ilea. Bisualki, makillajearen harmonia hautsi egiten da begietako tonua baino argiagoa erabiltzen bada ezpainetan. Ile-horiei oso ondo geratzen zaizkie gorriak eta tonu argiak; beltzaranei, arrosak eta gorrixkak; ile-gorriei, gorriak eta laranja batzuk, hala nola koral-kolorea.



ALERTA GORRIA

Barra matea, 11 zk. gorria / Hydra-brillo, 05 zk. cherry gorria / Ezpainetako barra krematsua, 07 zk. granatea.



Atera zukua laranjari

Ezpainetako barra krematsua, 10 zk. laranja.



ROSA ROSAE

Barra matea, 09 zk. morea / Distira, 10 zk. fuksia / Barra matea, 12 pink arrosa / Ezpainetako barra krematsua, 02 zk. perla-lila / Barra krematsua, 14 zk. perla-arrosa / Hydra-brillo, 01 zk. mugurdi-kolorea.

ATERA ZUKUA LARANJARI

Ezpainetako barra krematsua, 10 zk. laranja / Barra matea, 04 zk. koral-kolorea / Hydra-brillo, 04 zk. mertxika-kolorea.



Azazkal-esmaltea, 39 zk., eta ezpainenako barra matea, 06 zk. naturala; bukatzeko, eman ezpainenako distiraren (11 zk. gardena) geruza mehe bat.

*Manikura
perfektu bat
lortzeko behar
duzun guztia,
ordu-erdi baino
gutxiagoan, eta
etxeke sofatik
bertatik...*

*Ausarteko
zara?*

MANIKURA ETXEAN

AZAZKAL 8 APARTAK URRATSETAN

1 Garbitu eskuak, eta kendu lehen zenuen esmaltea kotoizko disko bat eta esmalte-kentzeko azetonaduna erabiliz.

2 Moztu eta limatu forma emateko. Beti noranzko berean limatu, azazkalaren kanpoko muturretik erdirantz, eta, hala, haustea edo ezpaltzea saihestuko duzu.

3 **Manikurako pilula eferbeszentek.** Sartu pilulak katilu batean ur epeletan, eta sartu azazkalak 10 bat minutuz. Efektu bigungarria dute, eta hori lagungarria izango da azazkal perfektuak eta ondo hidratatuak izateko.



4 Eman **bitamina-olioa** (E) azazkaletan eta kutikuletan, eta eman masajea beren onera itzultzeko. Ondoren, garbitu eskuak produktu-hondarrak kentzeko.

Tratamendu gogortzailea

Azazkal hauskorrak dituztenentzat, **gogortzaileak** (F) azazkalak gogor eta osasuntsu hazten laguntzen du, eta koloregabetzea prebenitzen.

Azazkal hozkatuak

Bizio hori alde batera utzi nahi dutenentzat, **Deliplus** hozkaden kontrakoak (A) **keratina** sortzea eragiten du; **antioxidatzailea** eta **hidratatzailea** da, eta **ura jasaten du**. **Geruza bat edo bi ematen dira azazkal garbien, esmalterik eta distirarik gabekoen, gainean, eta, lehortutakoan, zapore mingotsak eragozten du azazkalak hozkatzen jarraitzea.**

5 Kutikuletan, eman **kutikula-kentzekoa** (C), eta poliki bultza egin, laranjondo-ziri baten laguntzaz. Garbitu eskuak berriro.



6

Garrantzitsua da azazkalak babestea: eman oinarri bat kolorea eman aurretik. **Oinarri leuntzaileak** ildoak leuntzen ditu, **antioxidatzailea** eta **hidratatzailea** da, eta **orbantzetik eta/edo koloregabetzetik** babesten ditu. Azazkal hauskorretarako, aukeratu gure tratamendu **gogortzailea** (F). Eta **5 1ean oinarri bitaminadunak** (D) azazkala hidratatu eta indartu egiten du, **distira ematen dio**, horitzea saihesten du, eta kolorea luzaroan mantentzen du. Hautatu zure beharretara ongien egokitzen dena.



7

Makillatu azazkalak hautatutako kolorearekin; esmaltea erdian ematen da lehenik, eta, gero, alboetan. Lehenengo geruza lehortutakoan, eman beste bat, kolorea bizitzeko.

8

Azkenik, eman **distira-gel lehorgarria** (B), bizkorrago lehortzeko eta gehiago irauteko.





MAITASUNA

LEHEN BEGIRATUAN

*Emaitza sutsu
eta oso distiratsuak.
Deliplus Color
azazkal-lakek
maitemindu egingo zaituzte,
bere formula dela eta:
emateko erraza, eta koloretsua.
Ikusi nolakoak diren,
eta konbinatu tonuak.*

V formako manikura frantsesa



Aldatu manikura frantses klasikoa, eta eman V formako akabera. Margotu azazkal -muturra **40 zk. esmaltearekin**, eta, gero, eman **36 zk. esmaltea**, bi koloreak ondo ikusteko moduan.

Nahaste lineala



41 zk. esmaltea eta **23 zk. esmaltea**. Margotu hatz nagiko azazkalak 23 zk. esmaltearekin eta gainerakoak 41 zk. esmaltearekin; ondoren, egin lerro zuzen bat hatz nagikoan esmalte horrekin.



BAZENEKIEN?

Bilduma berriak pintzel lau berritzaile bat du, esmaltea hobeto eta berdinago emateko. Katumihiaren formako pintzelari esker, doitasun handiagoaz ematen da azazkal osoan.



Twista azazkaletan

Sortu koloreen *degradé* antzeko bat **24 zk. esmaltearekin** eta **18 zk. esmaltearekin**. Azazkal bata jarri oinarri gisa, eta bestea pintzelarekin, kurba moduko bat eginez. Hala, bi tonuak ikusiko dira. Beste azazkalean, berriz, alderantziz. Hala osatuko dugu esku bakoitzeko looka.



Tanto ñimiñoak

Lortu tanzoz osatutako diseinu bat: margotu hatz nagiko azazkala **38 zk. esmaltearekin**, eta egin puntutxoak laranjondo-ziri baten muturra **40 zk. esmaltean** sartuta. Kolore horrekin berarekin margotu gainerako azazkalak.



KOLORE-IRAULTZA

DISTIRA HANDIKO
AZAZKALETAKO LAKA

deliplus
COLOR





9.60
WOMAN
SPORT WATER

*kirolaria
eta femeninoa*